

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Kultura Departamentua

Kultura Departamentuko dirulaguntzak emateko deialdia.

a) Kultura-programak oro har.

2019K9990001 espedientea.

2018ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbazarrek kultura departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak onartu zituen (2019ko otsailaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 33 zk.).

Bi dira oinarri horietan araututako lerroak edo programak eta, orain, 2019. urtean dirulaguntza horiek emateko deialdiak banan-banan onartu behar dira.

Horiek horrela, eta Kultura Departamentuaren proposamena ikusi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen. Kultura-programak oro har egiteko dirulaguntzak emateko deialdia onartzea. Dirulaguntzak 2019. urtean emango dira, norgehiagoka araubidez.

Bigarrena. Ondorengo gastua egiteko baimena ematea, partida honen kontura:

– Partida: 1 0608.481.00.334.30 2019 (4752).

– Kultura-jardueretarako dirulaguntzak: 26.000,00 euro.

Hirugarrena. Deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Deialdia.

1. Helburua.
2. Eskaerak.
3. Instrukzioa eta proposamena.
4. Hautapen eta balorazio irizpideak.
5. Ebazteko eta jakinarazteko epea.
6. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea.
7. Dirulaguntzaren zenbatekoa.
8. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.
9. Publizitatea.
10. Diruz laguntzeko gastuak.
11. Araudia.
12. Errekurtsoak.

1. *Helburua.*

Deialdi honen helburua da irabazi-asmorik gabeko kultura-edo gizarte-elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Dirulaguntzak 2019 urtean zehar hainbat kultur programa eta jarduera egiteko izango dira, eta duten proiektio eta interesagatik bat etorriko dira Kultura Departamentuaren honako programen helburuekin: kultura programak oro har.

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

Departamento de Cultura

Convocatoria de subvenciones del Departamento de Cultura.

a) Programas culturales en general.

Expte: 2019K9990001.

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el 29 de noviembre de 2018 aprobó las bases específicas del otorgamiento de subvenciones del departamento de cultura (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 33, de 18 de febrero de 2019).

Son dos las líneas o programas de subvenciones que se regulan en esas bases, y ahora procede aprobar cada una de las convocatorias para su otorgamiento.

Ante ello, y vista la propuesta del Departamento de Cultura, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

Primero. Aprobar la convocatoria para el otorgamiento de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para la realización de programas culturales en general, en el año 2019.

Segundo. Aprobar la realización del gasto en la partida que se referencia a continuación:

– Partida: 1 0608.481.00.334.30 2019 (4752).

– Subvenciones para actividades culturales: 26.000,00 euros.

Tercero. Publicar dicha convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Convocatoria.

1. Objeto.
2. Solicitudes.
3. Instrucción y propuesta.
4. Criterios de selección y valoración.
5. Plazo de resolución y notificación.
6. Justificación del destino de la subvención.
7. Cuantía de la subvención.
8. Dotación y partida presupuestaria.
9. Publicidad.
10. Gastos subvencionables.
11. Normativa.
12. Recursos.

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la solicitud y concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a las asociaciones culturales o sociales sin ánimo de lucro para la realización de diversos programas y actividades culturales durante el año 2019 que por su proyección e interés coincidan con los objetivos de los distintos programas del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz en los siguientes ámbitos: programas culturales en general.

Kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira.

2. Eskaerak.

Dirulaguntza horiek irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-arloko elkarteek eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.

Inprimakiak (Kulturako E-01, E-02, E-03 eta E-04 ereduak) osorik eta ongi beteta Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira hilabeteko epean, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

Eskaerak Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez egin ahal izango dira:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=079&hizkuntza=EU>.

Edo, bestela, Udalaren Erregistro Orokorrean (Etxezabala, Kale Nagusia 29), astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan 7:30etik 15:00etara, eta ostegunetan 7:30etik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Eskaerak Kultura Departamentuaren oinarri berezietan ezarritako betebeharrak beteko dituzte.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

3. Instrukzioa eta proposamena.

Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da instrukzioa eta proposamena.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Kulturako arduraduna.
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa.

– Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, une bakoitzean Udalaren administrazio-antolamenduan indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

4. Hautapen eta balorazio irizpideak.

Zarauzko Udalak erabakiko du zein egitasmo onetsi, deialdi honetako eranskin 1 eranskinean zehazten diren irizpideak kontuan hartuta. Gutxienez 50 puntu ateratzen ez dituzten egitasmoak ezingo dira diruz lagundu.

5. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82 artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Eskariak ebazteko gehienez 3 hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordu-rako berariazko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.

Ebazpenak Administrazio bidea amaituko du.

Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Quedan expresamente excluidos de la concesión de subvenciones los programas y actividades que no sean realizadas directamente por las asociaciones culturales o sociales solicitantes.

2. Solicitudes.

Podrán solicitar las citadas subvenciones las asociaciones sin ánimo de lucro, de carácter cultural o social, legalmente constituidas e inscritas en los registros correspondientes, que dispongan del correspondiente NIF y que desarrollen su actividad principalmente en el ámbito del municipio de Zarautz.

Los impresos (modelos E-01, E-02, E-03 y E-04 Cultura) debidamente cumplimentados en su totalidad deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa:

Las solicitudes podrán realizarse en los servicios telemáticos del Ayuntamiento de Zarautz:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=079&hizkuntza=CA>.

O, si no, en el Registro General del Ayuntamiento (Etxezabala, Kale Nagusia 29), los lunes, martes, miércoles y viernes de las 7:30 a las 15:00, y los jueves de las 7:30 a las 15:00 y de las 17:00 a las 19:00.

Las solicitudes deberán cumplir los requisitos establecidos en las Bases Específicas del Departamento de Cultura.

La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra expresa de todas las condiciones contempladas en esta convocatoria.

3. Instrucción y propuesta.

La instrucción y propuesta se efectuará conforme a lo regulado en el artículo 17 de la Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zarautz.

Órganos competentes:

- Instructor: La persona Responsable de Cultura.
- Comisión de Valoración: Un órgano colegiado integrado por las personas componentes de la Comisión Informativa de Ciudadanía.

– Resolución: Corresponderá a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

4. Criterios de selección y valoración.

El Ayuntamiento de Zarautz seleccionará los proyectos que serán aprobados, teniendo en cuenta los criterios establecidos en el anexo 1 de la presente convocatoria. Aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán subvencionables.

5. Plazo de resolución y notificación.

Instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de Resolución, se evacuará el trámite de audiencia previsto en el artículo 82 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, salvo que no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de 3 meses desde la finalización del plazo de recepción de las mismas, considerándose éstas desestimadas si no recayera resolución expresa a dicha fecha.

La resolución dará por terminada la vía administrativa.

La resolución se notificará a las personas interesadas de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Emandako dirulaguntzen argitalpena egingo du Udalak, 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea.

Dirulaguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorraren eta Kultura Departamentuaren Oinarri Berezietan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua izeneko modalitatea erabiliko da. Halako kantitate bat ere onar daiteke zeharkako gastu subentzionaagarritzat (gehenez ere programa edo jardueraren aurrekontuaren % 5ekoa), baldin eta erakunde onuradunaren administrazio kostu orokorren parte bat programari edo jarduerari egotzi ahal bazaio modu egiaztagarrian.

Justifikazio-kontuak, gutxienez, jarraian zehazten den informazioa jasoko du:

1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

Proiektu edo jardueraren izena.

Egindako lan-prozesuaren deskribapena:

- Burutako jardueren zehazpena: datak, jarduerak, tokiak...
 - Diruz lagundutako jardueren deskripzio zehatza eta edukia.
 - Lortutako helburuak.
 - Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskripzio zehatza.
 - Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutu edota portzentaletan).
 - Emaitzen ebaluazioa.
 - Beste alderdi batzuk.
- Dirulaguntza justifikatzeko txostena euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da.

Diru-lagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafiko eta idatzita: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea Jardueraren garapenean sortutako euskarrien ale bana erantsiko da.

2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko; agiri hauek sartuko dira:

a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren erantzukizunpeko adierazpen bat, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira (erabili E-05 inprimaki-eredua).

b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko frogabalioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko, dagozkion transferentzien agiriak edo aurkeztuko da dirulaguntza kobratuko den kontukorrante/euskarriko mugimendu guztien xehetasuna, hain zuzen ere, diruz lagundutako epealdian egindakoa.

Organo emaileak, laginketa-teknikaren bidez, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko aukera ematen duten frogagiriak egiaztatu ahal izango ditu, eta helburu horretarako hautatutako gastu-frogagiriak igortzeko eskatuko dio onuradunari.

El Ayuntamiento procederá a la publicación de las subvenciones concedidas, de acuerdo con lo establecido en el artículo 18 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

6. Justificación del destino de la subvención.

La justificación de la utilización de la subvención se realizará conforme se establece en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Zarautz y en las Bases Específicas del Departamento de Cultura y deberá presentarse antes del 31 de enero del 2020.

Se utilizará la modalidad de Cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto. Se podrán admitir como gasto indirecto subvencionable una cantidad que no podrá rebasar el 5 % del presupuesto del programa o actividad siempre y cuando parte de los costes administrativos generales de la entidad beneficiaria puedan ser atribuidos, de forma justificada, al programa o actividad.

La cuenta justificativa contendrá por lo menos la siguiente información:

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención. Esta memoria contará como mínimo con los siguientes apartados:

Denominación del proyecto o actividad.

Descripción de la actividad realizada:

- Indicación de las actividades realizadas: fecha, actividad, lugar...
- Descripción detallada y contenidos de las actividades desarrolladas del proyecto subvencionado.
- Objetivos conseguidos.
- Descripción detallada de las medidas adoptadas para incluir la perspectiva de género.
- N.º de participantes desglosados por sexo (número absoluto o porcentaje).
- Evaluación de resultados.
- Otros aspectos.

La memoria justificativa de la subvención se realizará en euskara o en euskara y castellano.

Documentación gráfica y escrita de toda la documentación, publicidad y cartelería creada mediante la subvención. Se adjuntará un ejemplar de cada documento producido en el desarrollo de la actividad.

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una declaración responsable del abono de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación de la persona o entidad acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas (utilizar impreso modelo E-05).

b) Los justificantes de gasto o documentos de valor probatorio equivalente o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior que permitan acreditar el cumplimiento del objeto de la subvención pública, con los correspondientes justificantes de las transferencias o el detalle de todos los movimientos de la cuenta corriente-soporte en la que se cobre la subvención, correspondiente al periodo subvencionado.

El órgano concedente podrá comprobar, a través de la técnica de muestreo, los justificantes que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin requerirá al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

Ohiz kanpo, kobratu ahal izateko, ez da beharrezkoa izango egindako gastuagatik hartzekodunei egindako ordainketa ziurtatzea. Kasu horretan, Udalak, departamentu-arduradunaren edo kontu-hartzailearen bitartez, gastu horien ordainketa egiaztatuta ahal izango du gerora.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diruzarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita (erabili E-05 inprimaki-eredua).

3. Kultura Departamentuko Oinarri Berezietan zehazten diren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudian ezarritako betebeharrak bete direla zehazten duen zinpeko aitortpena. Horretarako E-06 inprimaki-eredua bete behar da.

7. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da.

Onartu beharreko dirulaguntzak murriztu ahal izango dira, aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko hautatutako proiektuen artean.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiak erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen hurrenkera ez da ezarri beharko.

8. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.

Dirulaguntzak ondorengo ataletan oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atal horietako bakoitzak gehieneko kopuru hauek izango ditu:

– Partida: 1 0608.481.00.334.30 2019 (4752).

Jarduera kulturaletarako dirulaguntzak 26.000,00 €.

Emango diren diru-kopuruak 2019 urteko aurrekontua onartu ondoren erabakitakoak izango dira, eta hor azalduko dira Udal honek gehieneko emango dituen dirulaguntzak.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko ezinbesteko baldintza izango da 2019 ekitaldirako udal aurrekontua onartzea eta indarrean sartzea.

9. Publizitatea.

Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta erdaraz.

Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein neurri hartu behar diren programa edo jarduerak jasotako finantziario publikoaren berri emateko, eta kasu bakoitzean zehaztuko ditu zein izango diren euskarriak, kopurua, publizitate agerraldiaren tamaina edo forma.

10. Diruz laguntzeko gastuak.

Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein gastu izango diren diruz laguntzekoak.

11. Araudia.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira:

– Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*).

– Zarauzko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 140 zk.).

De manera excepcional, no será necesario como requisito para el cobro, acreditar el pago a los acreedores por razón del gasto realizado. En estos casos, el Ayuntamiento a través de la persona responsable del departamento o del/de la Interventor/a podrá comprobar posteriormente el abono efectivo de estos gastos.

c) Una declaración responsable, firmada por el/la Tesorero/a de la asociación, de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia (utilizar impreso modelo E-05).

3. Detalle del cumplimiento de las obligaciones establecidas en las Bases Específicas del Departamento de Cultura respecto de la Normativa municipal para la normalización del uso del euskara. Para ello se debe cumplimentar el impreso modelo E-06.

7. Cuantía de la subvención.

El reparto de estas subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.

Las subvenciones a aprobar podrán ser minoradas para permitir incluir entre los proyectos seleccionados algún último para el que (o los que) la consignación presupuestaria disponible solo alcance su cobertura parcial.

En caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender a todas las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos, no hará falta establecer el orden de prelación que conlleva el procedimiento de concurso.

8. Dotación y partida presupuestaria.

Las subvenciones se podrán solicitar en base a los siguientes apartados, a los que se destinarán las siguientes cuantías máximas:

– Partida: 1 0608.481.00.334.30 2019 (4752).

– Subvenciones para actividades culturales 26.000,00 €.

Las dotaciones serán las resultantes tras la aprobación del presupuesto del año 2019 y constituirán el máximo de las subvenciones a conceder por el Ayuntamiento.

La concesión de las subvenciones previstas en las presentes bases queda supeditada a la aprobación y entrada en vigor del presupuesto municipal para el ejercicio del año 2019.

9. Publicidad.

La entidad beneficiaria de la subvención deberá dar publicidad, en euskara o euskara y castellano, al carácter público de la financiación del programa, actividad, inversión o actuación de cualquier tipo que sea objeto de subvención.

El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz concretará en cada caso las medidas a adoptar para dar cuenta del carácter público de la financiación del programa o actividad, especificando en cada caso, en que soportes, el número, tamaño o forma de la inserción publicitaria.

10. Gastos subvencionables.

El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz concretará en cada caso que gastos serán considerados gastos subvencionables.

11. Normativa.

En todo lo no previsto en la presente convocatoria se aplicará:

– La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* 25 de julio).

– La Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zarautz aprobada de forma definitiva en el Pleno del 16 de julio de 2008 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 140, de 22 de julio de 2008).

— Eta Kultura Departamentuaren oinarri bereziak, 2018ko abenduaren 29ko udalbatzarrean behin betiko onespena jasotakoak (2019ko otsailaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 33 zk.).

12. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Oharra: Interesatuak, dirulaguntza hau eskatzeko beharrezkoak diren inprimakiak eskura egongo dituzte Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuan.

Zarauzko Udala - Kultura Departamentua.

Sanz-Enea Kultur Etxea.

Nafarroa, 22 20800 Zarautz.

Tel: 943.005.120. Fax: 943.005.206.

E-mail: kultura@zarautz.eus.

Zarautz, 2019ko apirilaren 3a.—Xabier Txurruka Fernandez, alkatea. (2207)

1. ERANSKINA

DIRULAGUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera (inprimaki E-01 eredu) doan memoria labur batean egiaztatu beharko dira:

— Elkartearen erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna, bazkide-kopurua etabar.

— Burutu beharreko programaren edo jarduera.

— Programaren edo jardueraren bideragarritasun ekonomikoa.

— Elkartearen finantza-baliabideak.

— Oinarri hauetan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-02 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

Bete beharreko hizkuntza-irizpideak:

1) 18 urtez azpiko haur, nerabe eta gazteentzat antolatutako jarduera guztiak euskara hutsez izango dira.

2) Mezu idatziei dagokienez (kartel, esku-orri, prentsa-iragarki, sarrera-txartel eta gonbidapen, liburuxka, gutun, deialdi, ohar eta gisakoak), euskaraz edo hi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelaniaz) idatzi eta ezagutaraziko dira. Elebitan egiten diren kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gazteleraizkoaren aurretik) bai neurriaren aldetik. Euskarazko testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeke, dirulaguntza jasoko duen erakundeak Udaleko Euskara Departamentura jo ahal izango du.

3) Ahozko komunikazioetan (aurkezleak, hizlariak, irakasle/monitoreak, bozgorailuetako mezuak, irratietakoak, jarritako musika...) euskara hutsa erabiltzera joko da eta bi hizkuntza ofizialak (euskaraz eta gaztelaniaz) erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna gazteleraizkoaren aurretik eta, mezua errepikatzen denean, gazteleraizkoa baino bi aldiz sarriago, behintzat, emanda.

— Oinarri hauetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-03 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

— Y las Bases Específicas del Departamento de Cultura aprobadas ambas de forma definitiva en el Pleno del 29 de noviembre de 2018 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 33, de 18 de febrero de 2019).

12. Recursos.

Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.

Nota: Los impresos necesarios para solicitar las presente subvenciones están a disposición de las personas interesadas en el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zarautz.

Ayuntamiento de Zarautz - Departamento de Cultura.

Sanz-Enea Kultur Etxea.

Nafarroa, 22 20800 Zarautz.

Tel: 943.005.120. Fax: 943.005.206.

E-mail: kultura@zarautz.eus.

Zarautz, a 3 de abril de 2019.—El alcalde, Xabier Txurruka Fernandez. (2207)

ANEXO 1

CRITERIOS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES

En la adjudicación de subvenciones se valorarán los siguientes aspectos, que deberán ser acreditados en una breve memoria junto a la solicitud (impreso modelo E-01):

— La trayectoria, continuidad y estabilidad demostrada por la entidad solicitante, número de socios/as, etc.

— Programa o actividad/es a realizar.

— Viabilidad económica del programa o actividad.

— Recursos financieros de la entidad.

— Cumplimiento de las obligaciones establecidas obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Normativa municipal para la normalización del uso del euskara (impreso modelo E-02), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

Criterios lingüísticos a cumplir:

1) Todas las actividades organizadas específicamente para niños y niñas, adolescentes y jóvenes menores de 18 años se realizarán exclusivamente en euskera.

2) Los textos escritos (carteles, programas de mano, anuncios en prensa, entradas e invitaciones, folletos, cartas, convocatorias, avisos y similares) se redactarán y difundirán en euskera o en las dos lenguas oficiales (euskera y castellano). En caso de que se redacten en las dos lenguas, se dará preferencia al euskera tanto en posición (euskera, arriba o a la izquierda y castellano, abajo o a la derecha), como en tamaño. Para garantizar la corrección de los textos escritos en euskera, las entidades beneficiarias podrán dirigirse al Servicio de Euskara del Ayuntamiento.

3) En las comunicaciones orales presentaciones, conferencias, profesorado/monitores-as, mensajes por megafonía, radio, música...) se procurará utilizar el euskera. En caso de utilizar las dos lenguas oficiales (euskera y castellano), se priorizará el euskera anteponiéndolo al castellano y repitiéndolo, al menos, dos veces más.

— Cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad entre mujeres y hombres (impreso modelo E-03), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

– Oinarri hauetan, 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizar-teratzeari buruzkoak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-03 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

– Oinarri hauetan, Ingurumenari buruzko Udal Araudiak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-03 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

1. Elkartearen erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna eta bazkide-kopurua: puntu 1 /urteko; gehienez 20 puntu.

2. Bazkide-kopurua: 0,5 puntu /bazkideko; gehienez 20 puntu.

3. Dirulaguntza jasotzen duten elkarten arduraren postuetan eta erabakitze organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.

4. Dirulaguntza jasotzen duten elkarten osakeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.

5. Burutu beharreko programaren edo jardueraren: 2 puntu /jarduerako; gehienez 20 puntu.

6. Diruz laguntzen den proiektuak berariaz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta / edo antolatutako jarduerak genero-ikuspegia edukitzea, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, arazoak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.

7. Bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-baliabideak (gehienez 25 puntu).

a) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: gastu eta diru-sarreraren aurrekontu zehazta: puntu 1 / 1.000,00 €-ko; gehienez 15 puntu.

b) Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutako dirulaguntzaren (Eskatutako dirulaguntzaren kopurua zehaztu behar da) proportzioa bere baliabide propioekiko: 0,1 puntu lortutako auto-finantzazioaren % 1rako; gehienez 10 puntu. Atal honetan, gutxienez 2,5 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Eskatutako diru-kopuruak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat (edo batzuk) sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurrekontutako eskaera guztiak erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen hurrenkera ez da ezarri behar.

2. ERANSKINA

DIRULAGUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Deialdi honetan eskaini ahal izango diren gehienezko konzeptuak eta zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira:

a) Kultura-programak oro har.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

b) Kultura-trukeko eta senidetzeko jarduerak.

– Cumplimiento de lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias (impreso modelo E-03), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

– Cumplimiento de lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Normativa Municipal de Medio Ambiente (impreso modelo E-03), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

Se seleccionarán los proyectos que serán aprobados teniendo en cuenta los siguientes criterios y los límites de valoración (hasta un máximo de 100 puntos). Aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán subvencionados:

1. La trayectoria, la continuidad y la estabilidad demostrada por la entidad solicitante: 1 punto/año; máximo 20 puntos.

2. Número de socios/as: 0,5 puntos/socio-a; máximo 20 puntos.

3. Que, en los puestos de responsabilidad y los órganos de decisión de la entidad subvencionada, la participación de las mujeres sea como mínimo un 40 %: 5 puntos; si no se cumple: 0 puntos.

4. Que en la entidad subvencionada la participación de las mujeres sea de al menos un 40 %: 5 puntos; si no se cumple: 0 puntos.

5. Programa o actividad/es a realizar: 2 puntos/actividad; máximo 20 puntos.

6. Que el proyecto subvencionado impulse explícitamente la igualdad entre las mujeres y los hombres, y /o que las actividades subvencionadas integren la perspectiva de género, teniendo en cuenta las diferentes situaciones, condiciones y necesidades de mujeres y hombres: 5 puntos, si no se cumple 0 puntos.

7. Viabilidad económica y recursos financieros (hasta 25 puntos).

a) Viabilidad económica del proyecto: presupuesto pormenorizado de ingresos y gastos: 1 punto por cada 1.000,00 €; máximo 15 puntos.

b) Los recursos financieros de la entidad y la proporción de la subvención solicitada (Hay que indicar la cantidad que se solicita en concepto de subvención) con relación a sus propios medios: 0,1 punto por cada 1 % de la auto-financiación obtenida; máximo 10 puntos. Los proyectos que obtengan en este apartado una puntuación inferior a 2,5 puntos serán denegados.

Las cantidades solicitadas podrán ser minoradas para permitir incluir entre los proyectos seleccionados algún último para el que (o los que) la consignación presupuestaria disponible solo alcance su cobertura parcial.

En caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender a todas las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos, no hará falta establecer el orden de prelación que conlleva el procedimiento de concurso.

ANEXO 2

CONCEPTOS E IMPORTES MÁXIMOS DE LAS SUBVENCIONES

Los conceptos e importes máximos que se podrán conceder en esta convocatoria son los que se detallan a continuación:

a) Programas culturales en general.

El importe de la subvención propuesto no superará el 75 % del presupuesto del programa.

b) Actividades de intercambio cultural y de hermanamiento.

b.1) Trukeak hiri senidetuetako elkarteekin:

Zarauzko elkarteak hiri senidetuak bisitatzeko:

Ondorengo kantitateak lagunduko dira diruz kontzeptu hauengatik:

– Hiri senideturaino egindako joan-etorrien gastuen % 50.

– Hiri senidetuaren egingo diren kultura-jardueretatik – museo-
etako sarrerak, etab.– sortutako gastuei aurre egiteko kantitate
bat. Kantitate hori kultura-jarduera horiek egin direla egiaztatzen
duten gastuaren frogagiriak aurkezten direnean onartuko eta
ordainduko da.

Hiri senidetuetako elkarteak Zarautz bisitatzeko:

Kultura-trukea egiten duen hiri senidetuaren elkarteak
Zarauzko elkarteari sortutako gastuen % 50eraino lagunduko
dira diruz, aurrez gastu horiek egiaztatzen dituen gastuaren
frogagiriak aurkezten badira eta 300 euroko mugaraino.

b.2) Trukeak senidetu gabeko udalerrietako elkarteekin:

Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu ondorengo kantita-
teak kontzeptu hauengatik:

– Xedeko udalerrirainoko joan-etorrien gastuen % 50, 900
euroko mugaraino.

– Senidetu gabeko hirian egingo diren kultura-jarduereta-
tik – museoetako sarrerak, etab.– sortutako gastuei aurre
egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultura-jarduera horiek egin
direla egiaztatzen duten gastuaren frogagiriak aurkezten dire-
nean onartuko da.

Espresuki dirulaguntza mota horren emakidatik kanpo utzi-
ko dira ostatu- eta mantenu-gastuak, izan ere, senidetzeeen filo-
sofiaren arabera, bidaiatzen duten elkarteko kideek hiri senide-
tuko elkarteko kideen etxeetan hartuko dute ostatu.

Dirulaguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurre-
kontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu
ahal izango dira, diruz lagundutako jarduera modu egokian
prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta
horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

b.1) Intercambios con asociaciones de las ciudades
hermanadas:

Asociaciones de Zarautz de visita a ciudades hermanadas:

Se subvencionaran las siguientes cantidades por los
siguientes conceptos:

– El 50 % del gasto de desplazamiento hasta la ciudad
hermanada.

– Una cantidad destinada a sufragar los gastos derivados
de la realización de actividades culturales en la ciudad herma-
nada, tal como entradas a museos, etc. Esta cantidad será
aprobada y abonada una vez sean presentados los justificantes
de gasto que acrediten la realización de las citadas actividades
culturales.

Asociaciones de las ciudades hermanadas de visita a
Zarautz:

Se subvencionaran los gastos ocasionados a la asociación
de Zarautz por la de la ciudad hermanada que realiza el inter-
cambio cultural hasta un 50 % de los mismos previa presenta-
ción de los justificantes de gasto que los acrediten y hasta el
límite de 300 euros.

b.2) Intercambios con asociaciones de municipios no
hermanados:

El Ayuntamiento de Zarautz se hará cargo de las siguientes
cantidades por los siguientes conceptos:

– El 50 % del gasto de desplazamiento hasta el municipio
de destino hasta un límite de 900 euros.

– Una cantidad destinada a sufragar los gastos derivados
de la realización de actividades culturales en la ciudad no
hermanada, tal como entradas a museos, etc., cantidad que
será aprobada una vez sean presentados los justificantes de
gasto que acrediten la realización de las citadas actividades.

Quedan expresamente excluidos de la concesión de este tipo
de subvenciones los gastos de alojamiento y manutención por
entenderse que la filosofía de los hermanamientos implica que
los miembros de la asociación que viaja son alojados en los domi-
cilios de los miembros de la asociación de la ciudad hermana.

La concesión de subvenciones se hará como máximo hasta
el límite de las consignaciones presupuestarias de la partida
correspondiente.

Con carácter excepcional, los gastos de garantía bancaria
podrán ser subvencionados si son indispensables para la
adecuada preparación o ejecución de la actividad subvencionada,
quedando a criterio de la Comisión de Valoración su aceptación.



KULTURA- EDO GIZARTE-ELKARTEAK - 2019RAKO DIRULAGUNTZAK - ZARAUZ

**Dirulaguntzaren eskaerari (E-01 eredua) erantsi beharreko dokumentazioa
(aurkezten diren dokumentuak X jar ezazu)**

- Elkaratearen arduradunaren edo bere ordezkoren NAN (fotokopia).
- Elkaratearen NFZ (fotokopia).
- Egitasmoaren jatorrizkoa.
- Gastu eta sarreraren aurrekontua eta beste dirulaguntzen eskaerari buruzko adierazpena .
- Hizkuntza ofizialen erabileraren aurreikuspenaren dokumentua (E-02 eredua)
- Zinpeko aitortpena (E-03 eredua)
- Zerga-bidezko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzearen aitortpena (E-04 eredua).
- Behar izanez gero, dokumentazio osagarria.

Dirulaguntza jasotzarekin batera hartzen diren konpromisoak

- Egitasmotik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzea.
- Behar diren baimenak lortzea.
- Egitasmoa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak Udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster.
- Dirua gastatzen ez bada, dirulaguntza itzultzea.
- Helburuak funtsean aldatuz gero, dirulaguntza itzultzea.
- Udalak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko arauari men egitea.

**Erantsi beharreko dokumentazioa dirulaguntza JUSTIFIKATZEKO garaian
(aurkezten diren dokumentuak X jar ezazu)**

- Egindako jardueraren memoria.
- Memoria ekonomikoa: gastu eta diru-sarreraren eta jasotako beste dirulaguntzen zerrenda sailkatua (E-05 eredua) eta gastuen agiri originalak.
- Hizkuntza ofizialen benetako erabileraren dokumentua (E-06 eredua)
- Behar izanez gero, dokumentazio osagarria.



SUBVENCIONES 2019 - ZARAUZ - ASOCIACIONES CULTURALES O SOCIALES

Documentación a adjuntar a la solicitud de subvención (modelo E-01)
(marcar con X los documentos que se presentan)

- DNI de la persona responsable o representante de la entidad (fotocopia).
- NIF (en su caso) de entidad (fotocopia).
- Original del proyecto.
- Presupuesto de ingresos y gastos y declaración sobre otras solicitudes de subvenciones .
- Documento sobre previsión del uso de las lenguas oficiales (**modelo E-02**).
- Declaración jurada (**modelo E-03**).
- Declaración de hallarse en el cumplimiento de la obligaciones tributarias y de la Seguridad Social (**modelo E-04**).
- En su caso, documentación complementaria.

Compromisos que se adquieren al obtener la subvención

- Asumir las responsabilidades que se deriven del programa.
- Obtener todas las autorizaciones necesarias.
- Comunicar al Ayuntamiento cualquier eventualidad en el desarrollo del programa, en el momento en el que se produzca.
- Devolver la subvención si el gasto no se produce.
- Devolver la subvención si se comprueba una modificación sustancial de los fines para los que se concedió.
- Cumplir todos los requisitos que el ayuntamiento indique y la normativa aplicable.

Documentación a adjuntar al JUSTIFICAR la subvención
(marcar con X los documentos que se presentan)

- Memoria de las actividades realizadas.
- Memoria económica: relación clasificada de los gastos e ingresos y otras subvenciones recibidas (impreso **modelo E-05**) y justificantes originales de los gastos.
- Documento sobre el uso real de las lenguas oficiales (impreso **modelo E-06**).
- En su caso, documentación complementaria.